

ALDE EGIN BEHAR DUGU

Bazen behin, 12 urteko neskatila bat Ana Kong deitzen zena, Ana Kazakhstanekoa zen.

Anak ile gorria zuen, begi berdeak zituen, aurpegian oreztak zituen, azal zurikoa zen, hanka luzeak eta argala zen. Anak betaurrekoak erabiltzen zituen, eta bi belarrietan belarritakoak. Anak praka luze bat zuen soinean, praka txuri batzuk, kamiseta urdin bat eta baita jertse gris bat ere. Zapatila beltz batzuk eta txamarra txuri bat. Bera ausarta, dibertigarria, alaia, batzuetan buru gogorra, bihurria, abenturazalea, eskuzabala, txukuna, irudimen handiakoa, berrietsua, lagunak errez egiten dituen eta langilea zen.

Ana astelehen batean, astelehen guztietan moduan ikastolara joan zen bere lagunik onenarekin Danarekin. Ikastolan zeudenean andereño bat joan zen Ana eta Danaren gelara beldurtuta eta hau esan zien:

-Danok kanpora! kanpora!

Ana, Dana eta beste ikaskide guztiek kanpora irten ziren. Anak bere lau anaiak hartu, Ali, Danil, Maxim, eta Armar eta etxera joan ziren. Etxera bidean ikusi zuten etxeak suntsituta zeudela, dena apurtuta eta pila bat hegazkin lehergailuak botatzen beraien herrira. Ana eta bere anai-arrebak korrika hasi ziren etxera heldu arte. Etxera heltzean Ana gurasoei deitzen hasi zen:

-Ama! Aita! Ama! Aita!

Egongelara joan zenean han topatu zituen bere gurasoak, baina bere gurasoak hilda zeuden, ematen zuen tiro bat jo zitelako Errusiako militarrek. Neskatila negarrez hasi zen, bere anai arrebak egongelara joan eta beraiek ere negarrez hasi ziren. Maximek gauza guztiak hartu, janaria, arropa, mantak, liburu batzuk, eta hainbat gauza hartu eta bere anai arrebak bidaia berri bat egitea proposatu zuen. Ana ados zegoen, emigratu egin behar zutela. Etxetik irten ziren eta basora joan ziren, basoan pertsona asko zeuden Kazakhstanetik alde egiten. Anai txikiak ez zekiten zer gertatzen zen, baina Anak eta Maximek ez zituzten nahi beldurtu eta ez zieten esan ezer.

Kazakhstaneko mugara heldu zirenean Errusiako militarrek zeuden. Beste familiak militarrengana joan eta militarrek hil egiten zituzten. Anak ez zekien zer egin, muga pasatzeko militarren ondorengorik pasatu behar ziren eta. Anak ideia bat zuen buruan, gaua bertan pasatzea eta goizean militarrek lo zeudenean mugatik pasatzea. Gaua pasatu ondoren Ana eta Maximek gauzak gorde, eta beste anai arrebak esnatu zituzten. Ixil-ixilik muga pasatu eta oinez jarraitu zuten. Anak herri batera nahi zuen heldu, janaria bukatzen zutelako. Bi egun pasatu ostean herrira heldu ziren.

Gau batean, kalean lo egiten ari zirela, bi mutil hurbildu ziren. Barre egin zuten eta mantak eta janari guztia kendu zizkieten. Anak negar egin nahi zuen, baina ez zuen anaien aurrean ahul agertu nahi. Hurrengo egunean, anai txikiak janaririk ez zegoela ikusita negarrez hasi zen. Anak dendako leihora begiratu zuen, barruan ogia

zegoen. Anai txikienak hiru egun zeramatzan ezer jan gabe.

-Ez dugu beste aukerarik- esan zuen Maximek ahots baxuan.

Anak bihotza estututa sentitu zuen. Ez zuen lapurra izan nahi, baina bere anai-arrebak gosez zeuden. Dendara sartu ogia hartu eta korrika hasi zen. Dendatik irten zenean autobus bat ikusi zuen. Beraiek zuten diru dena gordetzen zuten, garraio batean ibiltzeko atera eta Poloniara joan ziren autobusez. Astebete pasatu ondoren autobusean Poloniara heldu ziren. Dirua lortzeko lapurtu eta gero gauza horiek saldu egiten zituzten.

Goiz batean, Maxim konturatu zen Armarren urtebetetzea zela. Dendara sartu eta pastel bat lapurtzen saiatu zen Maxim, baina dendakoa konturatu zen. Maxim korrika hasi baina dendakoak harrapatu zuen eta golpeak eman zizkion aurpegian. Maxim, odolatan irten zen dendatik eta Anak ezin zuen jakin berari ere berdiña pasatuko zitzaioenik lapurtzen bazuen dendan janaria. Zuten diru dena hartu eta berriro ere autobusa hartu zuten.

Bi aste pasatu ondoren, Euskal Herrira heldu ziren. Anak lana topatu zuen, eta etxe bat erosi zuen. Hamar urte pasatu ondoren Anak, mutil bat ezagutu zuen Manu eta berarekin ezkondu zen. Hiru ume eduki zituzten, Nerea, Ane eta Beñat, eta Ana idazle izan zen. Liburu bat egin zuen "FAMILIAREKIN BIDEAN" deitzen zena. Eta hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Euskal Herrian.

Mantu